

Erf.: Basetxeen Ordenantza indargabetzea  
Espediente zk.: 16/

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

## **TXOSTENA**

### **Planteatutako gaia**

Bermeoko basetxeen erabilerari buruzko Ordenantza indargabetzea.

### **Nork eskatu dauen txostena**

Ofizioz.

### **Argudio juridikoak**

#### **a) Aurrekariak**

Bakarra: Bermeoko basetxeen egoera aldaketa dala eta, 1986. urtean onartutako Ordenantza zaharrituta geratu da eta indargabetu beharra dago.

#### **b) Oinarri juridikoak**

Bakarra: Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauan 781/1986 EDLk, bere 56. Artikuluaren arabera, Ordenantzak aldatzeko, Toki Erregimeneko 7/1985 Oinarri legeak bere 49. Artikuluak xedatzen dauana bete behar da eta, azken artikulua honen arabera, Ordenantzak onartzeko ahalmena Osoko Bilkureari jagokola adierazoten dau.

Horretaz gain, Ordenantzak indarrean sartzeko, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dira.

Beraz, Ordenantzak indargabetzeko ahalmena be, Osoko Bilkureari jagoko eta, indargabetze horreari publizitatea emon behar jake modu berean aldizkari berberan.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2016ko uztailaren 20an

Karmele Muñoa Arrigain  
Behin-behineko idazkaria